

# T S A K Z E R G A K I Z O Z T U T A

*Ekonomia suspertzeko, ingurumena zaintzeko eta zerbitzu publikoen jasangarritasuna bermatzeko hartu da erabakia*



#### Plaza

*Plazako lanak ekainerako amaituta egongo dira*



#### Zabor bilketa

*Edukiontzi komunitaricetan oinarritutako zabor bilketa onartu da*

# ale honetan zer?

- 3 Azpeitia ezagutzen eta erabakiak
- 4 "Auzoko" egitasmoa
- 6 Aranzadi
- 8 Hondakinak
- 12 Tasak
- 14 Plazako lanak
- 15 Partzaidatzazko aurrekontuak
- 16 Turismoa

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91

## telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zaborategia	943 15 18 75
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Konsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

## Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera izango dugu aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!

## HASIERAN



HASIERAN, DUELA MILIOIKA URTE, ITSASOAK ESTALTZEN ZUEN EUSKAL HERRIA.  
ITSASOAREN AZPIAN GERTATZEN ZIREN LUR MUGIMENDUEN ONDORIOZ,  
PIXKANAKA LURRA ITSASOAREN AZPIK IRTETZEN HASI ZEN.  
IZARRAITZ ETA ERNIO DUELA 120 MILIOI URTE INGURU ATERA ZIREN ITSASO AZPIK.

## erabakiak

### Urriaren 7an egindako Udalbatzan honako erabaki hauek hartu ziren:

- 1.-1.- Azpeitiko Udalak ekainaren 3an eta uztailaren 1ean egindako bilkuren aktak onartu ziren.
- 2.- 2015. ekitaldirako Udal-zerga agintarauen al-daketa aho batez onartu zen.
- 3.- Urola Erdiko Mankomunitatearen eta hura osatzen dituen udalerrien arteko konpost guneak kudeatzeko lankidetzazko hitzarmena aho batez onartu zen. Horrez gain Konpost guneak kudeatzeko udal-agintarauen berri eman zen.
- 4.- Azpeitiko herriari zarataren mapa behin betiko izaera aho batez onartu zen.
- 5.- Azpeitiko Ostalaritza eta Aisialdi jarduerak dituzten establezimenduak jartzeko udal-agintarauen al-daketari haserako onarpena aho batez eman zen.
- 6.- AGITAX Taxien elkarteak 2015erako tarifen proposamena aho batez onartu zen.
- 7.- Udalaren Plan Estrategikoaren baitan, Euskara suspertzeko honako dirulaguntza zuzena arautzeko hitzarmena: HITZA. Aho batez onartu zen.
- 8.- Udalaren Plan Estrategikoaren baitan, Euskara suspertzeko honako dirulaguntza zuzena arautzeko hitzarmena: UZTARRIA. Aho batez onartu zen.
- 9.- Udalaren Plan Estrategikoaren baitan, Euskara suspertzeko honako dirulaguntza zuzena arautzeko hitzarmena: ERLO. Aho batez onartu zen.
- 10.- Udalaren aurrekontuan 4. kreditu al-daketa aho batez onartu zen.
- 11.- Udalaren aurrekontuan eta Euskara eta Kirol Patronatuetako aurrekontuetan Alkatetzak 2014ko uztailaren 18an onartutako kreditu al-daketen berri eman zen.
- 12.- Azpeitiko herrirako hondakin bilketa sistema-ren proposamena aho batez onartu zen.
- 13.- Alkatetzak 2013ko urrian, azaroan eta abenduan onartu zituen ebazpenen berri eman zuen.
- 14.- Beste batzuk.

## botika txandak

**ALBERDI.** Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74  
Azaroaren 13, 19 eta 25.

**ARANBURU.** Plaza Nagusia - Goiko kalea 2  
Tel.: 943 81 13 50  
Azaroaren 11, 14, 17, 22 eta 23.

**BERISTAIN.** Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49  
Azaroaren 7, 12, 18, 24, 29 eta 30.

**EIZAGIRRE.** Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74  
Azaroaren 6, 8, 9, 20, 26 eta 28.

**JACOME.** Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58  
Azaroaren 5, 10, 15, 16, 21 eta 27.

# Auzoko; euskara eta aniztasuna uztartzeko

Proiektu berria azaroan jarriko da abian, astean behin bilduz.



Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, Euskaltzaleen Topaguneak, eta Azpeitiko Udalak, UEMAKo partaide den aldetik, 'Auzoko' egitasmoa jarri dute abian. Kontxita Martija eta Leire Etxaniz zinegotziek eta Eneritz Albizu, proiektuko dinamizatzaileak agertu dutenez, euskaratik hurrun bizi direnak hizkuntzara gerturatzeko asmoa du egitasmoak.

Euskara eta aniztasuna ditu ardatz proiektuak, eta jatorri desberdinetako azpeitiarrak harremanetan jartzea oso interesgarria eta aberasgarria iruditzen zaio Udalari. "Nola lor daiteke euskaratik hurrun bizi diren herritarrak hizkuntzara hurbiltzea?. Galdera horretatik abiatuz, ikerketa bat egin zen eta horrela sortu zen Auzoko proiektua. Auzoko, mintzapraktika gisako proiektua da, baina oinarritzko mailan", adierazi du Albizuk.

Planteamendua honakoa da; astean behin bildu auzotarrak (euskaratik hurbil bizi diren pertsonak) eta auzokideak

(euskaratik hurrun bizi direnak), bilera horietan dinamizatzaileak prestatutako dinamika egingo dira, jolas edo elkarrizketa bidez, beti ere, euskaraz. Albizuk gaineratu duenez, "garrantzitsua da jatorri desberdinetako azpeitiarrak harremanetan jartzea, eta hori euskaraz egitea. Herritar bakoitzaren sorteria, sustraiak eta ohiturak ezagutu eta errespetatuko ditugu Auzokon, eta gure hizkuntzatik hurrun bizi diren pertsonen auzokideen emango diegu gugana gerturatzeko. Izan ere, gure herrian euskara beharrezko tresna dute integrazioarako".

**"Euskaratik hurrun bizi direnak hizkuntzara gerturatzeko asmoa du egitasmoak."**

Hurrei zuzendutako ekimenak badaude, baina helduentzat euskarara hurbiltzeko ia modu bakarra euskaltegian ikastea da. Auzokok kultura, aisia eta euskara lotzen ditu eta modu ona da apurka-apurka, hizkuntza ezagutu eta hura ikasten jarraitzeko grina eta motibazioa pizteko. Horregatik, Udalak jatorri desberdinetako azpeitiarrak animatu nahi ditu ekimen honetan parte hartzerat! Horretarako, azpeitia. auzoko@topagunea.org helbidera idatzi edo 687 21 26 72 telefonora deitu behar da.

### Mintzalagun Sanjuandegin

Sanjuandegi auzoan abian da Mintzalagun egitasmoa. Bertan parte hartzeko izena emateko aukera dago oraindik, eta horretarako aurretik esandako telefono zenbakiaren edo posta elektronikoko helbidearen bitartez jarri behar da harremanetan. Orain arte 3 mailetan banatutako 4 talde osatu dira. Horrela, herritar bakoitzaren mailara egokitutako talde bat egongo da.



# Sufrimendu mapa osatzeko azpeitiarren lankidetzara eskatzen da

Euskal Herri osoan Aranzadik egiten duen lehenbizikoa izango da.

Azpeitiko Udalarentzat konpromiso utziezin bihurtu dira gertatutakoaren egia bilatu eta hedatzea memoria kolektiboan txertatzeko asmoz; justizia egitea; eta indarkeriaren ondorioak jasan zituztenei errekonozimendua aitortzea. Horrela, Azpeitiko Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarteak 1936. gerraren inguruko azterketaz gain, frankismoaren bukaeran, trantsizioan, eta gaur egun arteko aldirian Azpeitian gertatu diren eskubide urraketak aztertzen ari dira.

**"Azpeitian izandako giza eskubideen urraketa guztiak jasoko dituen dokumentua osatuko dugu, edozein motatako biolentzia eta giza eskubide urraketa, datorrenegatik datorrena."**

Proiektu honetan 2013. urtetik ari dira lanean, elkarren arteko lankidetzan, eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera. Lan honen bidez, Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, Nazioarteko Eskubideak bete nahi ditu Giza Eskubideei dagokienez, eta bere egin nahi ditu Egia, Justizia eta Erreparazioa printzipioak. "Alde batetik, ari gara 1936. urtearen inguruko gertaerak aztertzen, baina orain garai berriagoak aztertu behar dira. Gertuagokoak. Horretarako zer egingo dugu? Ba sufrimendu mapa deritzoguna. Azpeitian izandako giza eskubideen urraketa guztiak jasoko dituen dokumentua osatuko dugu,

edozein motatako biolentzia eta giza eskubide urraketa, datorrenegatik datorrena. Biktima guztiak aitortu behar dira, garai eta testuinguruak bereizita, baina inor baztertu gabe. Hau ez da politika eremuan kokatzen den azterketa bat, horretarako Udalarentzat oso garrantzitsua zen azterketa egiten zuenak ematen zizkigun garantiak", agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Beraz, hurrengo fasea sufrimendu mapa osatzea izango da eta horretarako, Azpeitiko bizilagunen laguntza eskatzen da: 1960 eta gaur egun arte edozein motatako Giza Eskubideen urraketa jasan dutenen testigantzak lortu nahi dira. "Orain arteko bidean oinarritzkoa izan da ikeritutako gaiarekin inplikazio zuzena edo zeharkakoa duten eragile sozial ugariarekin izan duten harremana izatea. Hala ere, oraindik giza eskubideen biktima izan diren batzuk identifikatzeko zailtasun handiak eta mugak ditugu, izan ere, kasu batzuetan, lekukotasun eta adituen frogak aurkitzea oso zaila da. Horregatik, herritarrei dei egin zaie konfidentzialtasun osoz, gurekin harremanetan jartzeko", Esan du Jabi Bucos historialariak.

"Azpeitian elkarbizitzaren aldeko apustu sendoa egitea nahi dugu, baina elkarbizitza ezin da eraiki edozein modutara. Elkarbizitza eraikitzeko oso zorrotzak izan behar dugu eta gure herrian pasatu dena ikuspegi egoki batekin aztertu. Edozein modutara ezin da egin. Eta lehena, egia jakiteko eskubidea da. Hori oinarritzkoa da, egia, hau da, zer pasatu den konkretuki jakin behar dugu. Eta egiaren atzean eraikitzen da errekonozimendua eta justizia letra handiz. Zer pasatu den ez badakigu ezingo dugu jakin nola berriro ez gertatu", dio alkateak.



## Edukiontzia komunitarioetan oinarritutako zabor-bilketa sistema onartu da

Errefusaren eta organikoaren ontziak kontrolatuko dira

**a**zpeitiko Udal Gobernuak edukiontzia komunitarioetan oinarritutako zabor-bilketa sistema berria proposatu du eta Udalbatzak, aho batez onartu du proposamena. Modu honetan, sistema berriak organiko eta errefusaren edukiontzietan aldaketak eragingo ditu, kontrola ezarriko baizate; errefusaren kasuan txipa ezarrita.

Azpeitiko alkateak, Eneko Etxeberriak, adierazi duenez Udalbatzak 2013ko maiatzean aho batez onartutako proposamenean oinarritzen da Udal Gobernuaren proposamena, izan ere, %70 birziklatze tasa lortzeko kontrol elektronikoa edo komunitaria izango dute materia organikoak eta errefusak. "Honela, berrikuntzen artean aurki daiteke edukiontzia marroiei kontrolatzen jarraituko

dela. Eta berdina gertatuko da errefusako edukiontziekin, grisekin. Errefusa botatzeko, gainera, aurrez zehaztutako edukiontzia erabili beharko dira, eta edukiontzia hauek 100-150 herritarrentzat izango dira. Eta txipa erabiliko da. Horrela, zaborra nahi nahi denean ateratzea egongo da (bizikidetzako ordutegiak errespetatuz beti ere), baino soilik astean 2 alditan", agertu du Etxeberriak.

Proposamen berria derrigorrezkoa izango da baina azpeitiar guztiok eroso sentitzeko modukoa dela uste du Udal Gobernuak, ahal ere, herritarrek esfortzu txiki bat egin beharko dute. "Sistema berritzailea da, horregatik proposamenaren arabera, azpeitiarrak esfortzu handiagoa eta kontzientziazio gehiago beharko dute, hala ere,

%70eko tasara iristea espero da. Izan ere, bilketa sistema ezik, bilketa emaitza ona lortzea da garrantzitsua. Neurria kontzientziazioa, hezkuntza eta formazioarekin lotu behar da, sortzaile handientzat sistema bereziekin eta auzo-konpostaren sakontzearekin, modu honetan, Udalbatzak adostutako %70eko tasara iristea lortuko da", dio alkateak.

Era berean, edukiontzia berritzeko aprobetxatuko da, guztiak berrituko dira, kristalarena salbu, izan ere, gaur egungo edukiontzia zaharkituta geratu dira. Inbertsioa 300.000 euro ingurukoa izango da.

Azkenik, alkateak gogoratu duenez, Lapatx bezalako zabortegiak ixteko esfortzu bat egin behar dugu herritarrok



eta birzikapen tasak hobetu.

"Sistema berritzailea da, horregatik proposamenaren arabera, azpeitiarrak esfortzu handiagoa eta kontzientziazio gehiago beharko dute, hala ere, %70eko tasara iristea espero da."

### Azpeitiko Garbigunea (Lapatx zabortegian)

Errezileko errepedea z/g

### Hau da Garbiguneko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:  
09:00etatik 13:00era eta  
15:00etatik 18:00etara.

Zapatuetan:  
10:00etatik 13:00era.

## Neurriak hartuko dira Antzibarrena industrialdeko hondakin pilaketan



Antzibarrena industrialdean herritarrek sortzen dituzten hondakin pilaketak saihesteko neurriak hartuko dira aurrerantzean. Lehen, edukiontzia bat zegoen industrialdean hondakinak eta zaborrak hara botatzeko, baina arauak errespetatzen ez zela ikusirik, Udalak hura kentzea erabaki zuen. Gaur egun, nahiz eta edukiontzia kendu, herritarrek jarraitu egiten dute leku berean hondakinak uzten, horregatik, jarrera salatzeaz gain, egoera ez errepikatzen neurriak hartuko dira.

Gainera, Lapatx zabortegian dagoen Garbigunea erabiltzeko deia luzatu nahi zaie herritarrei. Garbigunea honelako hondakinak jasotzeko prestatuta dago (obra hondakinak; lan txikitako gremioenak; egurrak; txatarra; lerro griseko, marroiko eta zuriko etxetresna elektrikoak; gurpilak; pilak; bateriak; etxeetako hondakin arriskutsuak).

## Tasak eta zergak izoztea erabaki du Udalak

Erabakia hiru ardatzetan oinarritu da; krisiaren eragina, ekonomia suspertzeko eta ingurumenaren aldeko neurriak, eta zerbitzu publikoen jasagarritasuna.



**b**igarren urtez jarraian, Azpeitiko Udalak zerga eta tasak izoztea erabaki du. Udaltzatza osatzen duten hiru alderdi politikoek aho batez onartu zuten erabakia eta herritarrak pairatzen ari diren egoeraz jabeturik hartutako neurriak direla agertu zuten.

Eneko Etxeberria alkateak adierazi duenez, zerga eta tasak izoztearen neurria 3 ardatz nagusitan oinarritzen da; "Lehena, ekonomia suspertzeko aurreko urteko neurri guztiak mantentzea eta ingurumenaren aldekoak da, bigarren ardatz Udalak egin behar duen esfortzua da herritarrek bizi duten egoera arintzeko eta azkenik, zerbitzu publikoen jasagarritasuna. Hau da, zerbitzuen kostuak arduraz

kudeatu behar dira". Modu honetan, Ondasun Higiezin Zergak (OHZ), kiroldegiko eta zaborraren tasek eta ibilgailuen zergak besteak beste, bere horretan izango dira 2015ean.

**"Tasak ez dira soilik dirua biltzeko tresna, politika ekonomiko aurrerakoia, herritarren bizi baldintzak eta justizia sozialean sakontzeko tresnak ere badira"**

"Tasak ez dira soilik dirua biltzeko tresna, politika ekonomiko aurrerakoia, herritarren bizi baldintzak eta justizia sozialean sakontzeko tresnak ere badira. Horregatik, garrantzitsua da ekitatearen, progresibitatearen eta birbanaketaren aldeko apustuak egitea, gehien duenak gehiago ordain dezan, gutxien duenaren mesedetan. Azpeitia benetan krisiaren eragin nabarmenak sufritzen ari da. Inguruko herriek baino gehiago eta egoera salbuespena izan daiteke, herritar askok lana galdu dute eta salbuespen gisa, Udalak esfortzu berezia egitea aztertu du", gaineratu du alkateak.

Honela, langabetuek, iritsi ezin direnek, eta familia ugariak laguntzak izango dituzte Kirol Patronatuan,



**"Ondasun Higiezin Zergak (OHZ), kiroldegiko eta zaborraren tasek eta ibilgailuen zergak besteak beste, bere horretan izango dira 2015ean"**

Euskara Patronatuan eta Gizarte Zerbitzuetan. Tasei aurre egiteko laguntzak, berriz, Gizarte Zerbitzuetatik bideratuko dituzte: egoera sozial eta ekonomiko larria dutenei, hobariak eta ordainketen atzeratzeak aplikatuko dizkiete. Familia ugarien kasuan, aldatu egin zuten laguntza sistema iaz, eta familia ugari izaera ez ezik, familia horien diru-sarrerak ere kontuan hartzen dituzte. "Planteamendu egokia da eta horri eutsiko diogu, kuota sistematik errenta errealer sistema kontsolidatzea nahi dugulako", dio Etxeberriak.

Ingurumenaren aldeko neurriak sustatzeko, aurtan ere kotxe elektrikoak edo hibridoak erosten dituztenei %50eko hobaria ezarriko zaie zirkulazio zergan; eta auzo edo autokonposta egiten dutenentzat ere mantendu egingo dute %25eko hobaria, kasu honetan zaborren tasan.

### Ekonomia jarduera suspertzeko eta krisi egoerari aurre egiteko hartutako hainbat neurri:

1. Komerztio berriak zabaltzen dituztenek edo berrikuntzak egiten dituztenek obra lizentzietan %75eko hobaria izango dute.
2. Industriarako ibilgailuei (kamioiak, erremolkeak, autobusak eta traktoreak) igoerarik ez zaie aplikatuko.
3. Industriarako hobariak banaka-banaka eta kasuz kasu aztertuko dituzte.
4. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan %50eko bonifikazioa izango dute egoitza bezala Azpeitia aukeratzen duten enpresa berrientzat.
5. Alokairua sustatzeko, etxebizitza hutsen OHZri %50eko errekar-gua ezarriko diote 2015ean ere.
6. Baserritarrek, bertako produktuak saltzen dituztenek, %50eko hobaria izango dute.
7. Higiezin industrialen kasuan, orain ordaindu ezin dituzten enpresei zergak atzeratzea.



## Plaza berria, ekainerako prest

Alberdi etxea bota dute bertan aparkalekuak egiteko

**b**igarren aste honetan hasi dira herriko plazaren berrurbanizatzeko eta oinezkoentzako lanak. Udalak plaza berritzea beharrezkoa ikusten zuen eta prozesu horretan, herritarren iritzia eta nahiak kontutan hartzea ezinbestekoa zela. Horregatik, herri galdeketa bat antolatu zen ekainean, bertan, azpeitiarrek nolako palza nahi zuten erabakitzeak aukera izan zuten. Galdeketa emaitzak garbiak izan ziren; azpeitiarrek nahi duten plaza oinezkoentzako eta kioskoarekin dela erakutsi zuten. Aukeran emandako hiru proiektuen artean, berriz, Irudika estudioaren proposamena irabazi zuen. Datuak eskuan izanda, Udalak Jarraipen Batzordea eratu zuen proiektua bozketaren emaitzetara eta Azpeitiko herriaren errealitateko egokitzeko.

“Plazaren berritze lanak bi fasetan burutuko dira; hasitako lehenbiziko fasean plaza azpiko hoditeria aldatuko da.”

“Jarraipen Batzorde honetan aho bateko eskaria izan zen gaur egun Alde Zaharrean dagoen adokinarik ez jartzea, pertsona helduei eta ezinduei sortzen dizkien irisgarritasun arazoak direla-eta. Horregatik, Udal teknikarien gomendioak jarraituz, galdeketa lehenean bi proiektuak uztartzen dituen soluzioa aurkitu da. Kioskoaren inguruan, adokin itxura emango duten harri-losa txiki eta

lauak jarriko dira. Aldiz, plazaren ertzetan harrizko losa handiagoak ipiniko dira”, agertu du Aritz Epelde zinegotziak.

Proiektua finkatuta, lanak esleitu dira, Altuna y Uria enpresak irabazi du lehiaketa, eta 8 hilabeteko epea izango dute obra amaitzeko. Lanak, beraz, 2015eko ekaina hasierarako amaituta egotea aurreikusten dugu eta denaren aurrekontua, 730.000 eurotako izango da. Kopuru horretatik, 100.000 euro Ur Kontsortzioak ordainduko ditu.

Plazaren berritze lanak bi fasetan burutuko dira; dagoeneko hasi den lehenbiziko fasean plaza azpiko hoditeria guztia aldatuko da. Lan hauek, San Sebastian jaierarako amaituta egongo dira. Bigarren fasea, sansebastianen

ondoren hasiko da eta lurzoru berria jartzeaz gain, Goiko kale eraberritzeko lanak egingo dira.

“Lanak, beraz, 2015eko ekaina hasierarako amaituta egotea aurreikusten dugu eta denaren aurrekontua, 730.000 eurotako izango da.”

### Alberdi etxeari, agur

Olazko Andra Mariaren Plaza eta Ardetxe Hotel aurrean kokatzen zen Alberdi Etxea eraitsi zen urrian zehar. Azpeitiko etxe ezaguna Altuna y Uria enpresaren lurretan kokatutako zegoen, eta enpresaren proposamena izan da etxea bota eta bertan aparkalekuak egitea plazako lanak irauten duten bitartean. Honela, plazan galdutako aparkaleku batzuk berreskuratu ahal izango dira lanek irauten duten bitartean.

### Herritarren beharrei erantzunez

Jakitun gara plaza oinezkoentzako lanek herritarren eragozpenak eta oztopoak eragingo dituztela. Horregatik, aukera desberdinak aztertzen egon ondoren, hainbat arazori irtenbideak emango dizkieten neurriak hartuko ditugu;

**APARKALEKUAK.** Obrak irauten duten bitartean, plazan aparkatzeko lekuak galduko dira. Horregatik, Olazko Amaren Plaza eta Ardetxe Hotel aurreko Alberdi Etxea eraitsi eta aparkalekuak egingo dira, ahalik eta azkarren.

**AZOKA.** Astearteko azoka plazatik aldatu beharra dago, horregatik, aurrerantzean Done Jakue kalean ezarriko dira postuak. Azoka dela-eta, plazako eta Done Jakue kaleko aparkalekuak galduko direnez, astelehenetan 17:00etan hasi eta asteartean 10:00etara bitartean, Soreasuko parking-ean dohainik aparkatu ahal izango da. Goizeko 10:00etatik aurrera, berezko tarifa izango du aparkalekuak.

**FESTAK.** Abenduan eta urtarrilean festa ugari izango ditugu, baina obrek arazorik ez ekartzea aurreikusten dugu. Izan ere, Santo Tomasetarako plazako instalazio guztia eginda eta hormigoia botata egongo da, eta San Sebastian ondoren adokina jartzen hasiko gara.

**BILERAK.** Lanek gehien eragingo dieten talde eta eragileekin bilduko da Udala obren inguruko azalpenak emateko. Honela, Alde Zaharreko merkataria eta dendariekin bildu gara dagoeneko, eta hurrengo egunetan gainontzeko eragileekin egingo ditugu bilera.

## Ekintzailetasuna, bidegorria, burujabetza eta baserri bideetan inbertituko dira 500.000 euro

Aldundiaren Partaidetzako Aurrekontuetan lehentasunak finkatu ziren.



azpeitiko udalean egindako bileran erabaki zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Partaidetzako Aurrekontuetako 500.000 euroak non inbertitu. Modu honetan, Urola Erdiko herritarrek ia zko ekimenean hasitako lanarekin jarraitzea hobetsi zuten, eta bide berdea berreskuratzeko lehen urratsa egitearen aldeko apustua egin zuten. Horregatik, diruaren erdia bertan inbertituko du Aldundiak. Bestetik, ekonomia berpizteko neurriak ere garrantzitsutzat jo zituzten.

### Partaidetzako aurrekontuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak martxoan abiatu zuen Partaidetzako Aurrekontuen ekimena. Horren helburua da herritarren parte hartzea bultzatzea diru publikoaren kudeaketan, baita partaidetzaren kultura gure gizartean errotzea. Parte hartze prozesu horren berezitasuna da ez dela kontsultiboa, herritarrei azken hitza ematen baitaio. Herritarrek erabakitzen dituzten proiektuak 2015eko aurrekontuetan txer tatzeko konpromisoa hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiek berretsi dute.

Herritarren iritzi eta proposamenak jaso ondoren, egitasmo hauek gauzatzeko erabakiak hartu ziren bileran:

Egitasmoak	€
Ekintzailetza arloko eskualdeko estrategia garatzea.	122.000€
Zestoa eta Zumaia arteko bide berdea osatzen joateko ibilbidean zehar dauden bi tunelen konponketa.	250.000€
2014an zehar lantzen ari den eskualdeko Energia Burujabetza Planak jasoko duen ekimen zehatz bat martxan jartzea.	65.000€
Eskualdeko baserri bideen konponketaekin jarraitzea.	63.000€

## Turismoa %28 hazi da

Bisita gidatuek harrera ona izan dute, bai bertakoen bai kanpokoen artean.

azpeitia bisitatu duten turistekopurua nabarmen hazi da. Hala erakusten dute datuek, eta azken urteetako tendentzia indar tzen ari dela agerian utzi dute. Ekainak 1etik abuztuak 31 bitartean Loiolako Turismo Bulegoan 12.058 turistei ahalbidetu zaie informazio zerbitzua. 12.058 turista horiek honela banatu dira hilabetez hilabete; ekainean 4.164, uztailen 3.186 eta abuztuan 4.708. 2013ko datuekin alderatuz gero, %28ko igoera suposatzen dute aurtengo datuek. Iaz errotu zen tendentziarekin jarraituz, taldean (bidai antolatuan) etorri da turista gehien, %68, baina uda sasoiak izanik, bere kabuz ibili den turista kopurua ere nabarmentzekoa izan da, ia 4.000 bisitari izan baitira familian, bikotearekin edo lagun koadrilan etorri dena.

Bisitarien jatorriari dagokionez, azken bi-hiru urteetako tendentzia mantendu da: Estatu Espainiarretik etorri dira gehienak, %53, eta Euskal Herriari dagokionez, bizkaitarrak izan dira nagusi.

Eskualdean bertan eguna pasatzeko aisialdiko ekintza eta zerbitzuei buruz galdetu da gehien, esparru guztietan gainera. Horrela, bisita gidatu programa, museoak, Urolako bide berdea, Izarraitz, pintxoak jateko aukerak... zabala izan da eskatu eta ahalbidetu den informazioa.

Aurtengoan Loiolako Santutegiaren kanpoaldean 5 Geltoki Historian ekimen turistikoaren salmenta, sustapen eta informazio etxola ere egon da zabalik uda sasoiak, eta 3.000 pertsona inguru pasatu da bertatik; ondorioz, salmenta kopuruan ere antzeman da eragina.



### Azpeitiko altxorrak

Horrez gain, Azpeitiko bisita gidatu bereziak egin dira aurtengoan ere, eta harrera oso ona izan dute. Abuztuan herrian egin diren bisita horietan parte hartu dutenen gehiengoa Estatu Espainiarrekoa izan da, baina eurekin batera, azpeitiarrak ere asko izan dira.

Bestalde, Azpeitiko Udala eta Jesusen Lagundiaren lan hitzarmen bat medio, Madalenako ospitale eraberritua publikoari zabalik egon zen abuztuko asteburutan eta bisita gidatu egunetan. Helburua, herriko ondarea balorean jartzearekin batera aisialdi eta turismorako eskaintza zabaltzea izan da. Guztira, 395 pertsonak bisitatu dute Madalena zabalik egon izan den bitartean. Nabarmentzekoa da ia erdiak (175) azpeitiarrak izan direla, gainontzekoak Estatu Espainiar jatorrikoak (130), Euskal Herria (81), eta atzerriarrak (9).

Oraindik, Madalenako Ospitalea bisitatu ez duenak, abenduaren 13an izango du aukera, 12:00etan. Erreserbak egiteko azken eguna abenduaren 11 izango da, eta horretarako, Loiolako turismo bulegora joan edota 943 15 18 78 telefono zenbakira deitu behar da.

## Erakundeekin harremanak, euskaraz



Euskararen aldeko pausoak ematen jarraitzen du Udalak eta Gipuzkoako Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzarari harremanak euskaraz izateko eskaerak luzatu dikio gutun bidez. "Azpeitia herri euskalduna da, eta herritarrek duten beharrei erantzunez, euskaraz funtzionatzen dugun Udala gara. Logikaz, Jaurlartza eta Aldundiarekin ere euskaraz egiteko eskubidea izan behar dugu. Euskara gure hizkuntza baita. Era berean, Udalak onartutako administrazioa euskalduntzeko planean marratzutako bideari jarraitzen zaio", agertu du Euskara batzordeburu den Kontxita Martijak.



## Zorionak dantza txapeldunei

Amets Amubieta eta Maialen Aldalur zoriontzen ditu Udalak urrian Seguran jokotutako 38. Euskal Herriko Dantza Suelto Txapelketa irabazteagatik. Bi azpeitiarrek maila bikaina agertu zuten eta txapela eta zapia eskuratu zituzten. Bikotekideen ikasketak direla eta, Udalaren omenaldia atzeratu egin behar izan da. Honela, dantzari txapeldunek merezitako omenaldia Santo Tomas jaien baitan egiten den dantza txapelketan jasoko dute. Era berean, Seguran egindako txapelketan parte hartu zuten gainontzeko bikoteak ere zoriondu nahi ditugu agertutako maila onagatik. Zorionak denori!

## Urola Gustagarri, bertako produktuekin



Urola Gustagarriren bigarren edizioa abian da jada. Abenduaren 8ra arte, bailarako ekoizleek hornituta eskualdeko hamar jatetxek baserriko labeldun txerria eta Errezil sagarra produktuetan oinarritutako menuak eskainiko dituzte. Ekimenaren helburua bertako produktuak baloreari jarri eta bertako sukaldariak trebetasun handiz prestaturiko menuen bidez, aisialdi eta turismorako eskaintza hobetzea da, lehendik eskualdeak duen eskaintza turistikoa oparoaren osagarri. Honakoak dira jatetxeak: Joseba eta Laja Azkoitian, Jai Alai, Kiruri, Larrañaga, Mikel Uria eta Sagasti Zahar Azpeitian, Beizamako Ostatu Zaharra, Letea Errezilen eta Aranburu Aizarnan.



20, osteguna

XXXII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK  
Konpota  
Ordua: 21:30ean  
Lekua: Gaztetxean

ZEZILIN OMENEZ KONTZERTUA  
JUAN ANTXIETA MUSIKAKO JAIALDIA  
Ordua: 19:00etan  
Lekua: Soreasu Antzokian

NOLA LANDU ETA KUDEATU GURE EMOZIOAK GURE SEME-ALABEKIN HITZALDIA  
Ordua: 18:30etatik 20:30etara  
Lekua: Gaztelekua.

ERAKUSKETA: BELEN AGIRREGABIRIAREN GURUTZE-PUNTUKO LANAK.  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

21, ostirala

XXXII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK  
Zertarako hegoak  
Ordua: 21:30ean  
Lekua: Gaztetxean

ZEZILIN OMENEZ KONTZERTUA  
JULIAN BARRENETXEA ETA KBT  
Ordua: 19:00etan  
Lekua: Soreasu Antzokian

ERAKUSKETA: BELEN AGIRREGABIRIAREN GURUTZE-PUNTUKO LANAK.  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

22, larunbata

XXXII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK  
Espazio Hutsak  
Ordua: 21:30ean  
Lekua: Gaztetxean

ZEZILIN OMENEZ KONTZERTUA  
AZPEITIKO UDAL MUSIKA BANDA  
Ordua: 19:00etan  
Lekua: Soreasu Antzokian

SOREASU ANTZOKIA  
Zine emanaldia  
21:30 "La isla minima"



PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: BELEN AGIRREGABIRIAREN GURUTZE-PUNTUKO LANAK.  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

AURORA & THE BETRAYERS  
Ordua: 23:00etan  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

23, igandea

XXXII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK  
Barbantxo  
Ordua: 18:00etan  
Lekua: Soreasu Antzokia

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: BELEN AGIRREGABIRIAREN GURUTZE-PUNTUKO LANAK.  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

24, astelehena

SOREASU ANTZOKIA  
Zine emanaldia  
21:30 "La isla minima" (Ikuslearen eguna)

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: BELEN AGIRREGABIRIAREN GURUTZE-PUNTUKO LANAK.  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

25, asteartea

ERAKUSKETA: EGUNKARIA AUZIA  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.



26, asteazkena

ERAKUSKETA: EGUNKARIA AUZIA  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

27, osteguna

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: EGUNKARIA AUZIA  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

28, ostirala

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 18:00etatik 20:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: EGUNKARIA AUZIA  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

29, larunbata

SOREASU ANTZOKIA  
Zine emanaldia  
19:00 "El juego del hambre: sinsajo (parte 1)"  
21:30 "El juego del hambre: sinsajo (parte 1)"

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: EGUNKARIA AUZIA  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean

30, igandea

SOREASU ANTZOKIA  
Zine emanaldia  
16:30 "Aviones: equipo rescate"  
19:00 "El juego del hambre: sinsajo (parte 1)"  
21:30 "El juego del hambre: sinsajo (parte 1)"

PEDRO LUENGOREN "MATRIKULAK" ERAKUSKETA  
Ordua: 12:00etatik 14:00etara  
Lekua: Betharran Aretoa.

ERAKUSKETA: EGUNKARIA AUZIA  
Lekua: Sanagustin Kulturgunean



azpeitia  
denon artean

2015eko aurrekontuak  
2025 plan estrategikoa



# azpeitia herritarrekin elkarlanean eraikitzen

Plaza Nagusia, 5 • Tel.: 943 15 72 00 • [www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net)

